



26/2018, azaroaren 26koa

EBAZPENA

Giza Baliabide eta Administrazio Kudeaketa Zerbitzua

Ebazpena, Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren administrazio bereziaren eskalan, su itzaltze eta salbamendu zerbitzuan, azpieskala teknikoan, inspektore kategorian, barne-igoerako sistema bidez karrerako funtzionario sartzeko deialdian behin betiko hautatutako pertsona onartzen duena.

Lehendakaritzaren 4/2018 Ebazpenak, otsailaren 6koak, Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren administrazio bereziaren eskalan, su itzaltze eta salbamendu zerbitzuan, azpieskala teknikoan, inspektore kategorian, karrerako funtzionario sartzeko hautaprobeen oinarriak onartu zituen.

2018ko azaroaren 26an, deialdiko epaimahaiak hautaketa prozesuan behin betiko onartutako pertsonaren nortasuna helarazi dio Lehendakaritza honi.

Barne-igoerako sistema bidez egindako hautaketa prozesu horren helburua da hutsik dagoen III. hizkuntz eskakizuneko (ez derrigorrezkoa) inspektore lanpostu bat (1) betetzea (sailkapeneko A1 taldea).

Beraz, ez dagokio deialdiarekin lotutako lanpostuen zerrenda argitaratzea, prozesuko parte-hartzaileek euren lehenespenak adierazteko, lanpostua bakarra baita, eta parte-hartzailea ere bai.

Bestalde eta deialdian parte hartzeko eskatutako betekizunak egiaztatzeari dagokionez, merezimenduen egiaztagirak Erakunde Autonomoan daudenez, ofizioz konprobatu da horien betetzea.



Ondorioz eta deialdiaren oinarrietan ezarritakoarekin bat etorrituz, hautaketa prozesuan behin betiko onartutako pertsonaren nortasuna onartu, eta karrerako funtzionario izendatzeko proposatu zaio Administrazio Batzordeari.

Horren ondorioz, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenena. Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren administrazio bereziaren eskalan, su itzaltze eta salbamendu zerbitzuan, azpieskala teknikoan, inspektore kategorian, barne-igoerako sistema eta lehiaketa-oposizio prozedura bidez karrerako funtzionario sartzeko behin betiko hautatutako pertsonaren nortasuna onartzea.

Bigarrenena. Erakundearen Administrazio Batzordeari administrazio bereziaren eskalan, su itzaltze eta salbamendu zerbitzuan, azpieskala teknikoan, inspektore kategorian, karrerako funtzionario sartzeko behin betiko hautatutako pertsona izendatzeko proposatzea.

Hirugarrenena. Behin betiko hautatutako pertsonaren izena www.araba.eus/PortalEmpleo/ web orrian argitaratzea.

Gasteizen, 2018ko azaroaren 26an.

María Pilar García de Salazar Olano
Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde
Autonomoaren presidentea



Francisco Javier Carro Iglesias
Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde
Autonomoaren zuzendari-kudeatzailea



26/2018, azaroaren 26koa

Deialdia	Inspektorea. Barne- igoerako txanda

NAN	ABIZENAK	IZENA	BEHIN-BEHINEKO LANTOKIA
16**0**9K	GAR	JAV	1001 901 LANGRAIZ OKA